



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN PREMIAZKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

AITOR AGIRRE ALKORTA

zinegotziak

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2012ko urtarrilaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate Aitor Agirre Alkorta presidente izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorrotutako

GAIK

LEHENA. PREMIATASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Alkateak, hitza harturik, dio:

Premiatasunezko bilkuraren justifikazioa, Kutzaren Ordezkariek Izendatzeko, AGRUPAZIOA OSATZEA da.

Premiatasunezko bilkura egiteko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

BIGARRENA. KUTXA. AGRUPAZIOA OSATZEA

Udal Korporazioen Ordezkaritzari dagokionean, eta Kutzaren Erregelamendua eta Estatutuekin ados, Udal honek AGRUPAZIOA OSATZEA erabaki du, berdin erabaki duten, herri hauekin: Hernani, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Villabona, Lizartza, Mendaro, Usurbil, Mutriku, Zaldibia, Ataun, Ibarra, Ordizia, Legorreta.

Erabaki honen berri, KUTXAri ematea.

HIRUGARRENA.- GIPUZKOAKO KUTXAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN AKORDIOA

Gipuzkoako Kutzako Administrazio Kontseiluaren akordioen ondoren, udal-talde honek honako MOZIO hau aurkezten du, eztabaidatua eta onartua izan dadin:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- 1.- Hartutako erabakia gaitzestea, Administrazio Kontseilua bi indar politikoren artean bakarrik osatzearena, alegia, gainerako alderdi politikoak bazterrean utziz. Horrela, erabaki hau hartu dutenek Kutxabank entitatea erabat kontrola dezakete modu baztertzailan.
- 2.- Kutxabank osatzeko lortu zen adostasun hura mantentzea eskatzea, hiru Kutxetako Biltzarretan oso babestua izan zena. Adostasun horrek euskal gizartearen eta bere errealitate instituzionalaren ordezkari-tza anitz, adierazgarri eta proportzionala bideratzen zuen, Kutxabank izan dadin gizartearen eta Herri honen zerbitzura egongo den entitate bat.
- 3.- Kutxabank entitate berrian Kutxak duen ordezkari-tza errespetatzea exijitzea, joan den iraileko Kutxan Biltzarretan adostu eta onartutako parametroetan. Beraz, ez onartzea Kutxaren, Gipuzkoaren eta gipuzkoarren kalterako izango den ordezkari-murrizketa.

Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluaren akordioari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpi t'erdietan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Aitor Agirre Alkorta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia